

elkar

elkar
ALDIZKARIA
UDAZKENA 2013
33.ZENBAKIA
www.elkar.com

Jainko txiki eta jostalariaren bila

**Kirmen Uribe
Mikel Urdangarin
Rafa Rueda
Bingen Mendizabal
Mikel Valverde**

JULIA NAVARRO


Dispara, yo ya estoy muerto

UXUE ALBERDI

Emakumeen gorputzak, gorpuzkerak eta gorputzaldiak

**IZEN
PROPIOAK:**

Joxean Agirre, Joxan Artze, Alberto Moyano,
Sara Gándara, Karmele Jaio, Ruper Ordorika



elkar

libuk

euskaraz dakien eReaderra
elkar-en eskutik

elkarlibbuk.elkar.com
www.elkar.com



-10%

elkar Txartelarekin
Urriaren 15etik urtarriaren 15era
con la Tarjeta elkar
del 15 de octubre al 15 de enero

elkar

ALGORTA (GETXO)
Tellebte 11
944916616

ARRASATE
Erdikokale 14
943797829

BAIONA
Arsenal plaza
559593514

BASAURI
Dr. Jose Garai 11
944261384

BERGARA
Ibargarai 12
943764050

BILBO
Licenciado Poza 14
94434708
Iparragirre 26
944240228

Zamudioko ataria
Zapzikale
944161450

DONOSTIA
Fermin Calbeton 21
943420080
Fermin Calbeton 30
943422696
Bergara 6
943426350

GASTEIZ
San Prudencio 7
945144501
Apraiztarrak 1
Campus
945141670

HERNANI
Kale Nagusia 30
943551537

IRUN
Colon pasealekua 8
943631726

IRUÑEA
Comedias 14
948224167
Larraona z/g
Golem eraikina
948175538

TOLOSA
Arostegieta z/g
943673533

EKI IKASMATERIALAK ETA EUSKAL CURRICULUMA



MATERIAL EDUCATIVO EKI Y EL CURRÍCULO VASCO

Euskal Herriko hiru ikastetxe-sare desberdinako eragileek adostu zuten Euskal Curriculuma du ardatz ikasmaterial berriak. Izen ere, XX. mendearren azken urteetan Euskal Herriko Ikastolen Konfederazioak abian jarri eta XXI. gizaldi honen lehen hamarkadan zehar Euskal Curriculuma aztergai zuen ikerketa-lana egin zen, Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak, Euskal Herriko Ikastolen Konfederazioak, Kristau Eskola ikastetxeen federazioak eta Sortzen-Ikasbatuaz euskal eskola publikoen elkartea zuzendari zituela.

Urte hauetan guztietaik sortzeko lanean aritu eta gero, **IKASELKAR** argitaletxeak, **EKI** izeneko proiektuan, Euskal Curriculumaren garapen diren lehen ikasmaterialak sortu, ekoitzi eta eskaintzen ditu 2013-14 ikasturterako, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako lehen mailarako hain zuen ere. Lehen ikasmaterial hauek segida izango dute datozen urtetan DBHko maila guztiak osatu arte. Esan genezake, **EKI** Euskal Curriculumari guztiz lotutako proiektu bat dela, baina ez dugu ahaztu behar oinarrizko gaitasunen garapena nazioarteko eskakizun bat dela, beraz, Europako goi erakundeek abian jarri zuten hezkuntza-erreforma ere bada abiapuntu. Erreforma horren osagai nagusiak eskaintzen ditu **EKI** proiektuak: bizitza osorako konpetentzietai oinarritua, eleaniztasuna integratzen duena eta informazio eta komunikazio teknologiak (IKT) erabiltzen dituena.

Urte honetan, Espainiako Gorteek LOMCE (Hezkuntzaren Kalitatea Hobetzeko Lege Organikoa) onesteko bidean dira. Lege hau, hiru hamarkadetan zehar hezkuntza eragile anitzekin eraiki eta adostu den hezkuntza euskaldunaren zutabe nagusia den Euskal Curriculumak ireki duen bidearentzat oztopo izan daiteke.



Los nuevos materiales educativos **EKI** se articulan en torno al eje del Curriculo Vasco acordado por los agentes educativos de las tres redes escolares del País Vasco. Efectivamente, en los últimos años del pasado siglo XX la acción investigadora que inició la Confederación de Ikastolas de Euskal Herria tuvo su continuidad en la primera década del presente siglo bajo una dirección colectiva compuesta por el Departamento de Educación, Universidades e Investigación del Gobierno Vasco, la Confederación de Ikastolas de Euskal Herria, la federación Kristau Eskola y la asociación de escuelas públicas Sortzen-Ikasbatuaz.

Tras dedicar estos últimos años a la creación de contenidos para el nuevo material escolar, la editorial **IKASELKAR**, mediante el proyecto **EKI**, edita y ofrece los primeros materiales basados en el Curriculo Vasco para el curso 2014, en este caso dirigidos al primer curso de la Enseñanza Secundaria Obligatoria. Estos primeros materiales tendrán continuidad en los próximos años hasta completar todos los cursos de la ESO. Podemos afirmar que **EKI** es un proyecto estrechamente vinculado al Currículo Vasco, pero no podemos olvidar que las directrices europeas establecen que la enseñanza debe desarrollar las capacidades básicas del alumno. El proyecto **EKI** ofrece los componentes básicos de esa reforma que se propone desde las instancias europeas: trabajar las competencias de los alumnos, integrar el plurilingüismo y utilizar las nuevas tecnologías de la información y comunicación (TIC).

Este año se prevé la aprobación de la LOMCE (Ley Orgánica para la Mejora de la Calidad Educativa) en las Cortes españolas. Esta ley puede ser un claro obstáculo para el camino abierto por el Currículo Vasco, eje vertebral del sistema educativo vasco, construido y consensuado por los principales representantes del sector educativo a lo largo de tres décadas.

Jarrai gaitzazu sarean! ¡Síguenos en la red!

POSTDATA bloga

Ikusienet euskaraz:

- Joan Mari Irigoien egindako elkarrizketa *Arma, tiro, bammm!* bere azken lanari buruz. "Eleberriak bi plano ditu: arma lantegiaren ugazabari dagokio bata eta biktimari bestea".
- Uxue Alberdi Irria aldizkariaren Pupu eta Loreren atalaren gidoilaria ere bada. Lan horrekin asko gozatzen duela dio egindako elkarrizketan.

Lo más leído en castellano:

- La entrevista que realizó Joxe Mari Uribarri a Albert Espinosa. "Es muy importante amar tu propio caos".
- Sorteo de dos entradas dobles para la presentación del corto "Cuarenta días de mayo" de Mikel Alvira.

Iruzkin aipagarrienak:

- "Deserriko kantak ekartzen dituzunean, deserria bera gureganatzeko urratsa ematen dugulako. Zorionak, Eñaut!" Karmelo Landa.
- "Aupa Eñaut, hire kantuak amets egiteko dituk!". Silvia.

Comentarios destacados:

- "Montalbano es un personaje muy original, con dos características que le hacen único: envejece al ritmo de sus lectores y lee al escritor del que procede su nombre". Joaquín Armada.
- "Yo también busco las sonrisas que nos regala Albert Espinosa en sus novelas, esto sí que es arte". Sonia.

FACEBOOK



TWITTER @elkar



Biralitate handiena lortu duten euskarazko sarrerak:

- Ken Zazpi taldea eta Euskadiko Orkestra Sinfonika azaroaren 8an argia ikusiko duen lana ensiatzen eta grabatzen hasi dira.
- Hanif Kureishik idatzitako eta Harkaitz Canok itzultitako *Intimilatea* (Txalaparta) liburuaren gomendioa, Sustri Colínak egina.

Contenido más viral en castellano:

- El artículo del escritor Ander Izagirre sobre la literatura en "lugares exóticos" bajo el título *A qué olemos nosotros*.
- Todo un mundo gráfico a tu alcance con los rotuladores disponibles en la sección elkar paper.

Interakziorik handiena eragin duten euskarazko sarrerak:

- Ken Zazpik eta Euskadiko Orkestra Sinfonikoak azaroaren 8an aurkeztuko dute lan berria. Abenduan kontzertu bira hasiko da.
- Lekornen egindako Euskal Herria Zuzenean Festibalaren egitaraua.

Contenidos más interactivos:

- Programación de la Feria de Libro de Donostia.
- Muchas series de televisión están basadas en obras literarias previas. La escritora Katixa Agirre nombra varios.

JAINKO TXIKI ETA JOSTALARI HURA

Azken hamar urte hauetan lagun batzuk galdu ditugu eta heriotzari “ez” esatea bezala izan da guretzat, “gu behintzat batu egingo gara eta lagunek elkar zainduko dugu” mezua indartu nahi izan dugu.



ARGAZKIA: JUANTXO EGAÑA

Hamar urte joan dira “Zaharregia...” sortu zenutenetik. Nolatan orain “Jainko txiki eta jostalari hura” proektu berria?

Kirmen- Nik uste dut elkarrekin egoteko gogoa zegoela. Gauza gehienak hortik sortzen dira, elkarrekin egoteko gogotik. Joxean Lizarribar gaixotu zenean Mikelek eta biok lagunak batzea pentsatu genuen. Azken hamar urte hauetan lagun batzuk galdu ditugu eta heriotzari “ez” esatea bezala izan da guretzat, “gu behintzat batu egingo gara eta lagunek elkar zainduko dugu” mezua indartu nahi izan dugu. Oso gauza soila da, baina horixe da azken finean.

Mikel- Nik horri gehituko nioke, gure bizitzetan bazegoela subliminalki elkartzeko gogoa, gure bizitzek norabide ezberdinak

hartu bait dituzte (Kirmen Ondarroara, besteak hona eta hara...) eta elkarrengandik urrundu egin gara. Bazegoen elkartzeko eta disco berria egiteko gogoa, baina garbi utzi nahiko nuke Joxean hil izan ez balitz gu ez ginatekela orain egitasmo honekin elkarlanean egongo. Hiletan elkartu ginen denak, eta garbi ikusi genuen zerbait sortu behar genuela elkarrekin.

Zer aldatu da hamar urte hauetan? Zertan aldatu zarete zeuok?

K- Hasieratik kointzidentzia handia egon zen. Mikel eta biok bildu ginen hasiera batean, gero besteekin elkartu ginen eta denok sentitu genuen zerbait egiteko beharrra. Nik uste dut denak beste heldutasun batekin gaudela, sendotasuna irabazi dugu. New

Yorkera joan ginenean oso keinu xaloa izan zen, injenuitate horretatik sortu zen proiektu hura. Injenuoa izatea ausarta izatea da, gazte izatea. Eta eskerrak izan ginen!. Orain beharbada gure indarra ez dago gaztetasun horretan, baina bai heldutasunean, baita umiltasunean ere. Nik uste dut lan hau kalitatez hobea izango dela.

M- Nire iritziz denboraren joan-etorriak

“Orain beharbada gure indarra ez dago gaztetasun horretan, baina bai heldutasunean, baita umiltasunean ere”

Zaharregia, txikiiegia agian proiektutik hamar urte igaro direnean, Kirmen Uribe idazlea; Mikel Urdangarin, Rafa Rueda eta Bingen Mendizabal musikariak, eta Mikel Valverde artista plastikoa elkartu dira berriro Jainko txiki eta jostalari hura izeneko lana abian jartzeko asmoz. Honako ikuskizuna, aurrekoa bezala, disziplina artistiko ezberdinen espresibilitatean oinarritzen da. Azaroaren amaieran ikusiko du argia disco-liburu formatuan, baita zuzeneko ekitaldietan. Kirmen eta Mikel Urdangarinekin Gasteizko entsegu lokalean elkartu gara xehetasunak ezagutzeko.

apaldu egiten zaitu. Neu oraindik oso nerabe sentitzen naiz, eta Kirmen ere aita izan arren, oraindik oso bizirk dago. Rafa, Bingen eta Mikelek ere ume txikiak gordetzen dituzte hor azpian. Zorionez nerabe horri ez diogu agur esan nahi eta horri eskerrak gaude hemen. Orain dela hamar urtekoa ez da errepiatuko, beste zerbait emango da orain. Bidaia, lekuak errepiatuko ditugu, baina beste pertsona batzuk gara.

Gatozen proiektu berrira. Zer da Jainko txiki eta jostalari hura? Zer ikusiko du publikoak lan berri honetan?

K- Publikoak liburu bat ikusiko du, Mikel Valverderen irakurketa ilustratuekin, eta CD bat. CDan kantak, poemak eta hibridoak joango dira. Eta liburuan CDan dauden

testuez gain beste poema batzuk ere joango dira, zabalagoa izango da.

Eta izenburuaren jatorria? Oraingoan ere poema batean oinarritua?

K- Bai, poema batean oinarritua dago. Zer da jainko txiki eta jostalari bat? Existitzen al da? Agian gizakia bera da, pertsona, norbera. Lanak gizabanakoaren ikuspegia azaldu nahi du, bere alde on eta alde ahulak azalduko ditu poemetan... umorea dago testuetan, oso bitala da, Joxean Lizarribar zen moduan. Poema goibekoa ere badaude. Eta gure herriari buruzkoak ere dezente. Planteamendua oso zintzoa dela uste dut, Euskal Herriko gizabanako batzuek sortutakoa. Ukitu bihurri hori ere badu, izenburuan azaltzen den moduan.

M- Neuk gehituko nuke ez dela erraza

“Jainkoak ez dira txikiak izaten, handiak dira, beraz hor mezu iraultzailea ere badoa, aldarri bat dago.”

definitzten lan hau, ez da antzerki lana, ez du sistema narratiboa jarraitzen (hasiera-garapen-bukaera). Belo batek estaltzen du dena, non Kirmen den letron egile eta musika geuk jartzen dugun. Jainkoak ez dira txikiak izaten, handiak dira, beraz hor mezu iraultzailea ere badoa, aldarri bat dago. Itxuraz izenburuak txolina dirudi, baina jainkorik badago norbera da, bakoitzaren barruan dago. Beraz badago joera humanista bat guzti honetan. Giza harremanek gai askoren gainetik arduratzentz gaituzte, eta hemen ere agertzen dira. Norbanakoa kolektibo baten barruan, gure herria izan daitekeen hau, eta gure herri hau munduaren barruan. Hau aurreko proiektuan ikusten zen, azken finean oso lotura estua dago aurreko lanarekin. Nik uste dut oso izenburu egokia dela pentsamendu hori adierazteko.

K- Lana ez da batere iragankorra izango. Nik uste dut lan honek jendea harrapatu egingo duela. Bai musikak, marrazkiek eta testuek, jainko txiki horren moduan jendea sorgindu egingo dute. Eduki handiko lana dela uste dut.

Hiru diziplina landu dituzue proiektuan. Ze tresna erabili dituzue bakoitzean, aipatzen dituzuen helburuak lortzeko?

M- Musikaren kasuan, nik letrak erabili ditut. Hasieran banuen asmoa musika emateko Kirmen eta berak idazteko, baina aurreratu egin da, eta neuk konposatu dudana letron gainean izan da. Ez da nire ohiko joera, normalean nik musika egiten dut lehendabizi. Musika ikuspuntutik hiru elementu daude: Bingenen biolin elektrikoa (ez du txeloaren goxotasuna baina bai ordea sekulako indarra), Rafaren guitarra elektrikoa eta nire gitarra

JAINKO TXIKI ETA JOSTALARI HURA

Orinak marratzu zizkizun jainko hura izan gura nuke, jainko txiki eta jostalari hura, milaka puntutxo margotuz zure azalean.

Atsegin ditut zure orinak. Atsegin dut kontatzea izarrak balira. Eta izar berri bat aurkitzea egunero, supernoba bat aurkitzen duen astronoma legez zure bizkarreko tokirik ezkutuenean edo zure bularren azpian.

Zure azala neure behatzarekin ibiltzea dut gustuko, jarraitzea planeta desberdinaren artean sortzen diren lerro ikustezinak. Astiro-astiro, teleskopiorik zehatzena bezala.

Zuk diozu ez zaizkizula gustatzen, nahiago zenukeela orinik ez izan, azal zuri lauean. Bainaz egingo nuke nik, nora ezean dabilen itsasgizonaren nintzateke gau itxian.

Gogoan dut orin bat eskatu nizula ezagutu ginen gauean. Begiaren alboan duzun hori. Nahikoan nuen Itaka txiki hori nire etxean bertan eraikitzeo. Eta zuk eskuzabal, esan zenidan: den-denak izango dira zuretzat, guztira zenbat ditudan asmatzen baduzu.

Orinak marratzu zizkizun jainko hura izan gura nuke, jainko txiki eta jostalari hura. Eta musu eman gauero zure orinei, banan-banan eta kontu handiz, kontu handiz, desitsats ez daitezten.



ARGAZKIA: JUANTXO EGAÑA

akustikoa eta ahotsa. Folka noski hor dago, baina rocka ere bai. Guri gustatzen zaizkigun musiken kutsuak daude, eta guri denetatik gustatzen zaigu.

K- Letra forma asko aurkituko ditu publikoak. Bertso askean idatzitako poemak daude, baita errimatuak ere. Koplak eta zortzikoa ere badaude. Errima edo neurrian idatzentz asko gozatu dut. Bitxia da, neurrian idatzitako testuak umorezkoak dira, eta bat egiten da bertsolaritzarekin... Oso mundu ezberdinak azaltzen dira letratan. Badago Agirre lehendakariari buruzko poema bat, baita txikitako oroitzen bat... Ahots bat dago, baina kolore askotako letrak daude, bai formaz eta bai edukiz. Formak indar handia dauka. Nik uste dut hor heldutasun bat nabari dela.

New Yorken lehen emanaldia. Zergatik han?

K- Aurreko lanaren aurkezpena ere han izan zen, Bowery Poetry Clubean egon ginen

2003an, eta oihartzun moduan erabaki dugu han hastea. Berriz hastea bezala. Balio sinboliko handia du. Euskalaz egindako zerbaitek munduan lekua duela erakutsi nahi dugu, aurrekoan bezela. Joxeanek

zioen moduan, konplexurik gabe. Eta hori omenaldia egin nahi diogu nolabait.

KAROLINA SAINZ DE BIKUÑA

Kazetaria



Mikel Valverde ilustratzaile eta idazleak proiektu honetan marratzu eta margotzeko askatasun handia aurkitu duela dio. "Ohitura nagoen esparrutik guztiz at egon naiz; hemen sujerentziarekin jokatzeko aukera izan dut, musika eta poesiarekin batera irudi bat sortu behar izan dut".

Proiektuaren azala oso modu simple eta inprobisatuau jaoi zen. "Iustrazio bat eskatu zidaten, eta sagarr bat margotzea pentsatu nuen. Nire auzoko dendaro joan,

eta sagarr berde bat bila hasi nintzen. Sagarra aurkitu eta haren inguruan interpretatzentz hasi nintzen. Zerbait falta zitzaiola konturatua eta etxean ipini nuen. Kontziente nintzen baserri bat egin behar nuela.

Teilitatuk gorria behar zuen, kolore hau berdearen osagarria delako. Eta sagarraren eskuin muturrean ipini nuen, honek eskuin aldera orekatzen zuelako irudia. Azkenik, mezuri forma eman nion. Irudi poetikoa: New York, Euskal Herria".

SARA GÁNDARA
Periodista y presentadora




La primera vez que leí un libro por voluntad propia fue en 1998. *Los renglones torcidos de Dios*. Tenía yo 17 años y, y muy poca afición a la lectura. Bea, la amiga que me lo regaló, me hizo una dedicatoria especial: "Solo quiero que, a partir de ahora, disfrutes un poco más con la lectura". Y disfruté, a pesar de que el título no me inspiraba mucha confianza. Lo cierto es que Bea no solo consiguió que me leyese el libro, sino también que me aficionase a esto de la lectura. Recuerdo haberlo devorado con gusto, intentando incluso retrasar el final y conocer el desenlace. El libro de Torcuato Luca de Tena siempre ha estado presente y, por ese motivo, he decidido volver a leerlo 15 años después, durante las vacacio-

nes de verano. Con el sonido del mar de fondo y la calma necesaria para reflexionar sobre lo percibido, ha sido un placer volver a reencontrarme con esta obra. Todo sucede en un manicomio y *Los renglones torcidos de Dios* son, en realidad, esas personas no aptas para la vida cotidiana porque están enfermas. Más mental que físicamente, aunque lo uno lleva a lo otro. Son *locos, piraos, idos de la cabeza* como comúnmente se les puede conocer. Con esta segunda lectura y más edad, he podido captar muchas de las cosas que quiere contarnos el autor. Vidas destrozadas. Torcuato visitó unos cuantos manicomios y, además, convivió como un loco más, entre los locos. No hay duda de que Luca de Tena se empleó

Proposamena

LOS RENGLONES TORCIDOS DE DIOS



**LOS RENGLONES
TORCIDOS
DE DIOS**

Torcuato Luca de Tena
PLANETA

Profila

SARRI, SARRI...



AIORAJAKA
Itzultzaitzailea

Joseba Sarrionandiak hogeit urte baizik ez zituen 1978an Pott banda literarioko partaide bihurtu zenean. Aurreko hamarkadetako euskal idazleen poesia konprometitu eta militantearekin nazkatuta, Bilbon elkartutako sei idazle gazteek Europako korronte modernoak bereganatu eta helburu politikoetatik aske egongo zen euskal literatura berri bat sortzea zuten helburu. Korronte berrien egarri hori ondo asko islatu zuen Sarrionandiak bere lehen lanean, *Izuen gordelekuetan barrena* poesia-liburuan, non erreferentiaz intertestualez beteriko bidaia literarioa eskaini baitzigan Europako zazpi lurraldetan barrena.

Literaturak helburu politikoetatik aske egon behar zuela uste bazuen ere ("Política, etika eta idazkera alor desberdinak dira"), argi zeukan gizarteko kide moduan zapalketaren aurka borrokatzea zegokiola ("Poetari, politikaren alorrean, gizarteko partaide denez, zapalketen aurkako eta askatasunaren aldeko konpromisoa dagokio"), eta horrexegatik erabaki zuen ETA sartu eta Euskal Herriaren aldeko askatasunaren alde borrokatzea. Kartzelan bost urte eman ondoren, espertxetik ihes

egitea lortu zuen 1985eko San Ferminetan, bere literatura baino are ospetsuago egin den Kortaturen kantak ondo kontatzen duen bezala. Harrezkerotzik, Sarrionandiaren literatura presondegi eta erbestearekin lotuta egon da modu batean edo bestean: ziegako bakardadean eguneroko moduan idatzitako *Ni ez naiz hemengoa* hausnarketa-bilduma eta *Gartzelako poemak* poesia-liburua ditugu apika adibiderik argienak.

Bereziki poeta gisa ezagutzen den arren, ordea, poesia ez da idazle iurretararen bibliografiaren zati txiki bat besterik. Hasieratik izan du narrazio edo ipuin laburrak idazteko joera (*Narrazioak* bilduma ospetsua ez ezik, hortxe ditugu *Atabala eta euria edo Ifar aldeko orduak* ere), eta haurrei ere genero bat baino gehiago eskaini izan die (*Ainhoari gutunak* ezagunetik hasi eta *Idazlea zeu zara, irakurtzen duzulako* poesia-liburu ederraino). Nobelagintzan ere iaioa dela frogatu izan du, ondo frogatu ere, *Lagun izoztua* eleberriari esker hainbat sari irabazia baita, Espainiako Kritika Saria horien artean. Aipamen berezia merezi du, azkenik, Euskadi Saria irabazteagatik



hainbesteko polemika eragin zuen *Moroak gara behelaino artean?* saiakera-liburu mardulak.

Eta eskuarki bigarren plano batean utzi ohi diren arren, ez nituzke aipatu gabe

utzi nahi Sarrionandiak egindako itzulpen ugariak, munduko literaturaren ikuspegi "ez eurozentriko ez nazionalista" eskaintzeaz gain, itzulpena ulertzeko eta lantzeko modu berritzale bat aurreratzen baitute. Fidelitasun asmo oro esplizituki baztertz, Sarrionandiak birstortu egiten ditu euskarakaraz beste hizkuntza batzuetan irakurritako testuak. Interesgarria da oso *Izkiriatutik aurkitu ditudanene poemak* itzulpen-bildumaren hitzaurrean egiten duen gogoeta: itzultzean, poetak birstortu egiten du jatorrizko testua; baina, alderantziz ere, testu original bat sortzean, idazleak ez du ezerezetik sortzen, ezinbestean egiten du aurretik irakurri duen guztiaren nolabaiteko berridazketa edo birsorkuntza. Idazlearen kreazioa, dio Sarrionandiak, "ezin da errebisio besterik izan, errebisio hitza bertsio edo, zentzu zabal batean, translazio gisa konpreniturik". Sorkuntza eta itzulpena, beraz, eskutik helduta doaz Sarrionandiaren literaturgintzan: itzulpen originalez eta original itzuliz betetako mundu literario berezi bat eskaintzen digu idazle ezagunak bere ezkutaleku ezezagunetik.



LIBURU ZAHARREN ESTREINALDI BERRIAK

Zergatik eraman literatur klasikoak zine-pantailara? Tautologikoki erantzun daiteke galdera hori eta esan pantailara eramatzen direla hain zuzen ere klasikoak direlako, giza irudimenean errotuz belaunez belaun eta medioz medio aurrera egiten lortzen dutelako, orain paperean, gero iruditan. Ahots zinikoago batet ere gogorarazi diezaguke klasikoak lan zaharrak izan ohi direla, egile-eskubideak iraungita dituzten liburuak alegia. Doakoa suertatzen da beraz literaturatik zinemara egin beharreko bidaia.

Horrelako zerbaite gertatu zaio *Gatsby Handia* (Scott Fitzgerald, 1925) nobela zoragarriari, izan ere 2010ean bete ziren 70 urte Fitzgeralden heriotzatik, eta aurten estreinatu da bere bosgarren bertsio zinematografiko, ikusgarriena ziurrenik, Baz Luhrman zuzendari australiarren eskutik eta Leonardo DiCaprio Jay Gatsby dirudun misteriotsuaren papera eginez.

Baina klasiko gehiago ibili dira zine-aretoetan azken bolada honetan. *Anna Karenina* (Leon Tolstoi, 1878) XIX mendeko emakume adulteriogilerik famatuengatik bat, Keira Knightleyren gorputza eta ahotsarekin paratu zaigu begien aurrean. Pelikula britainiarra da, baina errusiar bibotez beteta, eta entretenigarria oso.

Eta emakume adulteriogileez ari garela ondo dago jakitea datorren urtean *Madame Bovary* (Gustave Flaubert, 1856) palomitekin batera disfratzeko aukera izango dugula.

Flauberten lehenengo eleberria, eta frantziar literaturaren gailurrenetako bat, Hollywoodeko zigiluarekin helduko da gure aretoetara aurki, eta *Mia Wasikowska*



gaztea Emma Bovaryren zapata sartuta ikusteko aukera emango digu. Aurten, gainera, euskalzko *Madame Bovary*ren berrargitalpen eta txukuntzea heldu da liburu-dendetara Patxi Apalategi itzultzalea eta Elkar argitaletxearek esker.

Eta Frantziako ondare literarioa abandonatu gabe, gogora dezagun azken bolada honetan *Les Misérables* (Victor Hugo, 1862) irudi egin zaigula zine-pantailan. Irudi eta soinu, izan ere bertsio musikal da Hugh Jackmanek eta Anne Hathawayk protagonizatu dutena berriki, Tom Hooper zuzendari britainiarri esker. Pena da Victor Hugoren literatur-lanak euskaraturik ez edukitzea oraindik, batez ere Besançongo egileak Euskal Herriarekin izan zuen harreman estua gogora ekartzen badugu.

Eta amaitu dezagun XIX mendeko errealismoak utzitako beste perla horietako batekin. Oraingoan kanala zeharkatu eta Erresuma Batura egin behar dugu salto Charles Dickensen *Great Expectations/Grandes esperanzas* nobelak 2012an edukitako estreinaldi zinematografikoaz hitz eiteko. Ralph Fiennes eta Helena Bonham Carter izan ziren aktore nagusiak anbizio handirik gabeko film hau burutzerakoan.

Baina honek ez du amaierarik, jakina. Laster William Faulknerren *As I lie dying/Mientras Agonizo* eleberriaren bertsio zinematografikoia izango dugu ikusgai (Cannesen dagoeneko estreinatu da). Eta badakizue, klasikoak klasiko izaten jarraitzen duen bitartean, denbora eta medio desberdin mugak gainditzen jarraituko du. Hainbat hobe guretzat.

BLUME www.blume.net

Taller de arte



Cartoné
23 x 27,5 cm
320 pp.

Salud | Vida natural



Rústica
19,5 x 20 cm
224 pp.

Repostería creativa



Cartoné con sobrecubierta
21 x 27 cm
224 pp.

Gastronomía



Cartoné con sobrecubierta
22 x 30 cm
240 pp.



Cartoné
19 x 24,5 cm
256 pp.

CON UNA NOVELA DE SARAMAGO BAJO EL BRAZO

Así en la vida como en la literatura, la lágrima goza de más prestigio que la risa, la tragedia acumula más méritos que la comedia. Toda columna sobre literatura humorística resulta sospechosa y me temo que hay que vestir la mona recurriendo a los clásicos para dotar de una cierta seriedad al escrito. La primera tentación es recordar que *El Quijote* es, antes que nada, una humorada y, en esa línea, seguir hasta las últimas tendencias que apuntan a que Franz Kafka fue, en primer término, un grandísimo escritor cómico. Para aclararnos, me gustan las novelas que te hacen llorar de risa. La aclaración no es baladí: la inteligente sonrisa, fruto de la complicidad con el autor y que se formula con la ceja enarcada, también goza de mucho más prestigio que la carcajada desatada. Viene a ser como lo del fino erotismo y la procáz pornografía, para entendernos.

Volviendo a la obra de Cervantes, veamos: "En un lugar de la Mancha, de cuyo nombre no quiero acordarme, no ha mucho tiempo que vivía un hidalgo de los de lanza en astillero, adarga antigua, rocín flaco y galgo corredor..." etcétera. De una belleza marmórea, sí, pero ¿hilarante? Pues no mucho. Por el contrario: "Habíamos salido a ganar; podíamos hacerlo. La, valga la inmodestia, táctica por mi concebida, el duro entrenamiento a que había sometido a los muchachos, la ilusión que con amenazas les había inculcado eran otros elementos a nuestro favor. Todo iba bien; estábamos a punto de marcar; el enemigo se derrumbaba. Era una hermosa mañana de abril, hacía sol y advertí de refilón que las moreras que bordeaban el campo aparecían cubiertas de una pelusa amarillenta y aromática, indicio de primavera. Y a partir de

ahí todo empezó a ir mal: el cielo se nubló sin previo aviso y Carrascosa, el de la sala trece, a quien había encomendado una defensa firme y, de proceder, contundente se arrojó al suelo y se puso a gritar que no quería ver sus manos tintas de sangre humana, cosa que nadie le había pedido, y que su madre desde el cielo, le estaba reprochando su agresividad, no por inculcada menos culposa. Por fortuna doblaba yo mis funciones de delantero con las de árbitro y conseguí, no sin protestas, anular el gol que acababan de meternos".

Corresponde al inicio de *El misterio de la cripta embrujada*, de Eduardo Mendoza. A principios del siglo XXI, la pregunta ya no es qué libro te llevarías a una isla desierta -por otra parte, un concepto extinto a manos del turismo de masas-, sino cuál seleccionarías para que te acompañara durante un preoperatorio.

Hay libros que por sí solos han hundidos editoriales. Otros, las han salvado. *La conjura de los necios* salvó Anagrama. Hasta que publicó la novela de John Kennedy Toole las finanzas de la editorial no estuvieron saneadas. Apareció en castellano en 1982 con una tirada de 4.000 ejemplares. A día de hoy, lleva 80 ediciones. Su autor se había suicidado tres años antes y, como dijo el editor catalán, "los cadáveres son difíciles de promocionar". No hizo falta porque cada uno de sus lectores se convirtió en su mejor propagandista. El famoso boca-oreja hizo el resto.

Ya que estamos, habría que preguntar a Heralde por el papel que ocupa en sus balances el éxito de *Wilt* y, por extensión, del resto de la obra de Tom Sharpe. Cómo olvidar los implacables



interrogatorios policiales que soporta impasible el insignificante profesor de instituto, forjado en el arte de la paciencia infinita a manos de sus alumnos. Y sin salir del ámbito del humor británico, ni del de la docencia, hay que citar a David Lodge, que en novelas como *Intercambio*, *La vida es un pañuelo* o *La vida en sordina* disecciona el ámbito universitario, a mi juicio, la institución más surrealista de cuantas soporta el mundo moderno, lo cual ya es decir bastante. A *La patria de todos los vascos*, de Iban Zaldúa, me remito.

Ahora, un puñado de pequeñas editoriales se han hecho fuertes en el terreno del humor. El sello Impedimenta acaba de publicar *El cristiano mágico*, de Terry Southern, una desopilante sátira sobre la infinita capacidad del ser humano a la hora de degradarse a cambio de dinero. Y qué decir de Blackie Books que tras recuperar a Jardiel Poncela, ha hecho lo propio con *Los millones*, de Santiago Lorenzo, sobre los desvelos de un miembro de los Grapo agraciado por la Lotería, pero que no puede cobrar el premio por carecer de DNI; o

Lamentaciones de un prepucio, de Shalom Auslander, una diatriba contra los preceptos religiosos y los miedos que acompañan su infracción; o *Tres hombres en una barca*, de Jerome K. Jerome, otro apoteosis del humor británico, casi una obra fundacional, podríamos decir.

En definitiva, como dijo Ignatius Reilly, "el humor es una cruzada contra la absurda fragilidad de la existencia y sus desmanes". Cuando es bueno, no hay nada tan profundo como el humor, desconfía de los gestos apesadumbrados. Ya lo dijo con otras palabras el detective zumbado de las novelas de Mendoza: "Con estas hogareñas prendas y una novela de Saramago bajo el brazo había hecho creer a su marido y a la servidumbre que se iba a dormir". Pues eso.


ALBERTO MOYANO
Periodista



JOXEAN AGIRRE

ARGAZKIA: ILARGI AGIRRE

“Banekien klandestinitatearen gaiak izan behar zuela ardatza, asko markatu gintuen gaia izan zelako”



Joxean Agirre idazle azpeitiarrak Adiskide bat nuen eleberria kaleratu berri du. Bere lanetan aurki ditzakegun ezaugarriak ere topa daitezke eleberri honetan: hizkuntza jolasti eta dotorea, etengabe irribarrea pizten duen tonu ironikoa, erotismo bizuale eta sentsuala, etab.

Klandestinitatea da eleberriaren ildoa. Zergatik?

Gure belaunaldia markatu zuten gai batzuei heltzeko gogoa sentzen nuen eta banekien klandestinitatearen gaiak izan behar zuela ardatza, asko markatu gintuen gaia izan zelako. Gure belaunaldia diodanean aspaldiko kontuez ari naiz, 68an gazteak ginen belaunaldi bati buruz, alegia. Laburtuz, diogun erbesteari eta klandestinitateari buruzko kontakizuna dela nagusiki nobela eta gai nagusi hori jorratzeko adiskide biren arteko harremanetan oinarritu naizela. Diodan bidenabar klandestinitatea berez dela gai oso literarioa, joko asko ematen duena.

Kontatzen duzun istorioa egiazkoa izan liteke, baina fikziotik ere badu.

Nik Parisen, 69tik aurrera, euskal erbesteratu mordoxka ezagutu nuen. Gutxi batzuk gerra ondoko erbesteratuak ziren eta gehienak bigarren erbestealdikoak eta hauen artean ETAkoak ziren

nagusi. Erakunde horretako kide batzuek sekulako dohainak erakusten zituzten beren bizimoduari buruzko zertzeladak kontatzen hasten zirenean. Adibide bat jartzearren, garai hartako bahiketa bati buruzko kontakizuna datorkit gogora eta film bat egiteko moduko zen. Bizimodu dramatikoa bizi zuten, baina artean ez zuten espaniar poliziak gerora iheslariei ezarri zien kontrolrik eta erbestean bederen giro lasaixeagoan bizi zirela esango nuke. Eta beren kontuak kontatzen hasten zirenean, esan bezala, gauzak esajeratzeko joera zuten. Literatura egiteko asko balio duen joera da hori.

Zer lortu nahi izan duzu fikziora salto eginez.

Ez da inondik inora nobela errealistak bat. Ez nuen militante baten biografia bat idatzi nahi. Historiak ere araka dezake errealtitate enpirikoa. Kazetaritzak ere eman dezake errealtitatearen lekukotasuna. Literaturaren egiteko beste bat dela uste dut: errealtitateari zirriztu batzuk aurkitzea, begiratzeko beste modu bat erakustea, batzuetan ihesbideak proposatzea, gordeleku bat... luze joko liguke kontu horrek.

Liburuak bi protagonista ditu: kontalaria, aldi berean protagonista, eta Garibaldi. Zer nolakoak dira?

Neurri handi batean lehen pertsonan idatzita dagoenez, narratzaileak protagonismo handia hartzen du. Beraz, esan daitete bi protagonista dituela: narratzailea bera eta militante buruzagia, Garibaldi. Umetatik adiskide diren arren, biak dira guztiz ezberdinak: narratzaileari kosta egiten zaio erabakiak hartzea, beti dago zalantzaren baten mende. Buruzagia trinkoagoa da, erabakiak hartu beharra egokitu zaiolako seguru asko. Kontraste horren gainean eraiki dut bien arteko harremana.

Bigarren mailako pertsonaia batzuk ere badaude liburuan. Protagonisten burutapenak eta gertaerak kontatzeko balio izan dizute?

Nobelak hiru istorio biltzen dituela esan daitete: esan dugun bezala, erbesteari eta klandestinitatearen inguruko kontakizun nagusi bat dago, baina honekin batean badago beste gai nagusi bat, sexualitatearena, gure

belaunaldiaaren marka izan zena hau ere. Gai hau gaurko ikuspegitik kontatzen da nagusiki. Gaurko gizartea sexualitateari buruz duen ikuspegia da kontatzen dena, baina lehenari erreferentziak eginez. Eta badago, azkenik, hirugarren kontakizun bat ere: Sagasesko neskarena. Azken lanetan beti agertzen den gaia da adinarena eta gaia jorratzeko orduan baliabiderik errazena traman emakume gazteago bat sartzea da. Adinaren gai hori modu oso ironikoan jorratzenten saiatzen naiz, dramatik egin gabe nolanahi ere. Sagasesko neskarekiko harreman hori ezinezko maitasun baten historia dela esan daiteke.

Lehendabiziko aldiz sartu dut alaba bat nire lan batean eta oso erraz moldatua naiz. Penaz despeditu nuen pertsonaia horietako bat izan da, hain lotsatua eta hain jatorra.

Donostia eta Triesteren artean kontatzen da eleberria. Zergatik bi hiri hauek?

Aurrekoan ere Zarautz, Donostia eta Veneciaren artean ibili nintzen eta oraingoan Trieste aukeratu banuen, erbestearekin lotura estuak dituen hiria delako izan da, mugako hiri bat, identitate aniztasunaren sinbolo izan dena eta historiak kanpo geratu diren gizakien aberritzat ere hartu izan dena. Bidenabar esan dezadan Claudio Magrisen bere pare bat liburutan kontatzen duen historia bat erabili dudala, Monfalcone herriko langileen historia bat, *leit motiv* bezala. Ez da erraz laburzeko moduko historia, baina diogun 1946an 2.500 langile joan zirela Trieste ondoko herri horretatik Titoren Jugoslavian sozialismoa eraikitzen laguntzeko eta handik urte gutxira, Titok SESBrekin hautsi zuenean, Italiako langile ezkertiar horiek Stalinen alde paratu zirela eta gulag batean bukatu zutela gehienek: alegia historiako heroizatetik erabateko ‘galtzaile’ izatera igaro zirela oso denbora gutxian. Garibaldi eta bere lagunak ere neurri batean behintzat lekuz kanpo eta orduz kanpo borroka egindakoaren zerrendan sartzen ditugula esan nahi nuen.

KIZKITZA LARRETXEA Kazetaria

Elkarritzetako osorik:
<http://postdata.elkar.com>

ARIAN
MÉTODO PARA APRENDER EUSKERA
EUSKARA IKASTEKO METODOA

elkar

<http://arian.elkarargitaltxea.com>

**ARIAN A2.2
YA A LA VENTA**





JOXAN ARTZE

“Zernahi maitasunez eta gogoz egiten dugunean, guztiok egiten dugu poesia”

ARGAZKIA: JUANTXO EGANA

Joxan Artze poeta ezagunak udazkenean bi poesia liburu berri kaleratuko ditu Elkar argitaletxearekin: Heriotzaren ataria dugu bizitza eta Bitezaren atea dukegu heriotza. Ez dira liburu solteak izango, baizik eta, hasiera batean, 7 lanez osaturiko bilduma. Urrian argia ikusiko duten lehenengo bi hauen inguruan hitz egiteko, bere etxeko goxotasunean hartu gaitu.

Zer da zuretzat poesia?

Ikusten eta bizitzen dugun guztiari ikusten ez den eta entzuten ez den hori ateratzea, eta hori ematea, izango litzateke poesia. Gauza eta pertsona guztietan, dudarik gabe, badago zerbaitek ikusten den horretan, ikusten ez dena. Badu horrek misteriotik, horrek ematen dio zentzia poesiari. Errealki ere horrela da, esentziak ez baitira ikusten. Formak ikusten ditugu, baina ikusten ez dugun horrek ikusten dena ulertzen laguntzen digu.

Horren berri ematea izango litzateke poesia, musika eta baita dantza ere. Azken batean, artea bere osotasunean hartuta. Honetaz gain, esan nahi nuke, ez bakarrik artean, baizik eta bizitzan ere, pertsona guztiok egiten duguna maitasunarekin egiten baldin badugu, han jartzen dugun arnasa ere poetikoa dela. Zernahi maitasunez eta gogoz egiten dugunean, nik uste, guztiok egiten dugula poesia.

Zer aurkituko du irakurleak bi lan berri hauetan?

Nire baitan bizitzen eta ikusten dudana beste pertsonek ere barruan dute. Nire bizipenak eta ikuskerak poesia bidez agertzen ditudanean, nik uste, beraiek ere neurri batean sumaturik dutena, baina formarik gabe... Gauzak ondo joanez gero olerkiok lagunduko diete ikusi ez duten hori ikusten, formarik gabea orain formadun.



Guztiok egiten dugu lan eta bakoitzak egiten duenak zerbaitek ematen dio besteari. Beharbada, beste lan mota batean ari denak ez dio arreta berdina jarriko bakoitzak jarriko liokeena bezala, baina elkarri adierazten badiogu nola egin eta bizitu duen egindakoa, denok jakingo dugu bestearen berri. Informazio elkartruke horretan komunikazioa sortzen da: bakoitzak bizi duguna guztiok bizi dugu. Hori da gizakion biziera eta izaera. Honek esnatu egiten du gure barruan erdi lotan dagoen hori. Horretarako balio behar luke poesiak, eta baita beste edozein arte motak ere.

Nori zuzendutako lanak dira?

Guztiei zuzendutako lana da hau, noski. Irakurtzen duenari eta irakurtzen ez duenari ere bai, honi ere eskainia da, honek hartu ez hartu, nik nirea egin dut, hortik aurrerakoa... Txoriei, tximeletei eta baita landareei ere zuzentzen natzae. Sorkari hauei buruz asko idatzi izan dut, eta pentsatzan

dut horiek niri zerbaitek esan baldin badidate, nik esango diedanak ere beraiei zerbaitek esango diela. Noski, beste era batean. Niretzako oso garrantzitsua da besteei laguntzea beren baitan den hori agertzen. Hori da gutxi gorabehera Mikel Laboak musikaturik duen *Maite ditut, maite* olerkian diodana: “Maite ditut maite gure bazterrak lanbroak ezkutatzan dizkidanean. Zer ezkutatzan duen ez didanean ikusten uzten, orduan hasten bainaiz, ezkutukoa, nire baitan pizten diren bazter miresgarriak, ikusten.” Guzition barru hori miresgarria da, azkengabea, jainkozko... Hori esnatzen laguntzea da ahalegina.

Ba al dago alderik lehendik argitaratuak dituzun lanekin?

Ez dago etendurak lehendik atera ditudan beste lanekin alderatuta. Duela urte mordoxka kaleratu nuen *Ortzia lorez, lurra izarrez* (Elkar) lanetik abiatuta, haren garapena izango litzateke. Bide horretan aurrera joan naiz era zabalagoan eta sakonagoan. Gai batzuk aurreko liburuetan ez ditut landu edo beste era batera tratatu ditut.

Intonso izeneko teknika erabili duzu. Zer da hori? Zergatik egin nahi izan duzu horrela?

Ez da teknika bat, baizik eta liburuaren orriak gilitotinaren ahotik ez pasatzea. Gilitotinak liburua kaxa bihurtzen du. Orriak irakurle bakoitzak berak mozteak pertsonalizatu egiten du liburua, lana eta misterio pixka bat jartzen dio. Beste kasuetan, irakurgia hartzearekin eta irekitzearekin nahikoa izaten da irakurtzen hasteko. Kasu honetan, ordea, ez. Irakurle bakoitzak bere erara ebakiko du eta bere nahiaaren arabera aurrera joango da liburuan. Misterio txiki horrek, nik uste, politago, gozoago eta batez ere norberarenago egiten duela liburua. Idatzi nuen lehenengo lanetik dagokion garrantzia eman izan diot paperari. Ez dut erabili gainean idazteko morroi gisa soilik. Papera hala bihurtu baino lehenago zuhaitz izan zen, eguzkia hartu

zuen, izarrekin amestu, lehortea eta bustialdiak jasan, haizearekin ere zenbatetan borrokatu... bitzitza du. Paperari beti eman diot garrantzia. Gaur egungoek ez dute garai batekoen zertasun hori; leunagoak dira, politak dira, baina ez dute (esku artean ditudan) hauek bezalako goxotasunik.

Hainbat urte pasa dituzu ezer kaleratu gabe, zergatik?

Ortzia lorez, lurra izarrez liburua bukatu nuen lehortea etorri zitzaidan, lan honetan barruan nuen guzta eman bainuen. Hiru urte eta erdi pasa nituen ezer idatzi gabe. Egunero jartzen nintzen lanean, mahaiaren aurrean ematen nuen eguna, baina ez zitzaidan hizkirkir ere ateratzen.

Lehenago ere banekien lehorraldiak izaten zirela, baina ez nuen uste hainbestekoa izan zitekeenik. Hiru urteren ondotik, tantaka-tantaka hasi ziren hitzak ateratzen; pixkanaka-pixkanaka geroz eta gehiago, azkenean uholdeka.

Horrelako jarioaren ondoren, argitaratzeko dena prestatzan hasi nintzen. Egongelako eta



pasilloko lurra dena paperez betea neukan. Gora eta behera ibili behar nuenez, otu zitzaidan egurrezko panel handietan jarri behar nituela poesiak, eta horrela horizontalki lana egin beharrean, bertikalki egiten hasi nintzen. Horrela hasi nintzen zutik lan egiten, eta poesia guzti hauek denak ordenatzen. Egotzainokoak izan da.

Uste al duzu zure poesiak konektatuko duela ezagutzen ez zaituen egungo irakurlearekin?

Nik uste baitetz. Kontuan izan behar da ez garela bolada batez ari, ezta adin konkretu batez ere. Hemen esaten ahalegintzen naizena, duela mila urteko gizakiarentzako izan edo mila urte barru etorriko denarentzako, berdin esango nuke. Hemen landu ditudan gaiak: gizatasuna, bizitza, bakartasuna, heriotza, nor garen, zer egiten dugun hemen... betiko galderak dira, pertsonak pertsona izaten jarraitzen duen bitartean egindo dituenak.

¡Manos a la obra!

elkar
paper

Con el final del verano llegan el comienzo de curso y las nuevas rutinas. ¡Es el momento de ponernos manos a la obra! Todo un mundo de nuevas técnicas han venido a revolucionar el ocio creativo para todas las edades. Sin necesidad de ser un manitas, actualmente tenemos todo un abanico de posibilidades a nuestro alcance para crear o personalizar nuestros objetos más queridos: bicicletas, álbumes de fotos, muñecos, jarrones, zapatos...etc. Sólo hace falta un poco de imaginación y buenos materiales. En la red de librerías **elkar** encontrarás todo lo que necesitas y te orientarán si eres nuevo en estas lides.



SCRAPBOOKING

Inmortaliza tus fotografías

